**UDAL BATZARRAK 2018KO URRIAREN 17AN EGINDAKO OHIKO SAIOAREN AKTA.-**

Soraluzeko hirian, 2018ko urriaren 17an, 19:00 orduak izanik eta aurrez deialdia delarik, Udaletxeko Saio Aretoan Patricia Borinaga Albeniz, Nagore Zabala Arrieta eta Iñaki Rubio Torrientes Alkateorde jaun-andreak eta Ramon Gallastegi Aldazabal, Javier Garmendia Ondarra, Unai Larreategi Azurmendi, Lorea de Castro Lete, Ainhoa Unamuno Aranburu eta Xabier Arribillaga Beretxinaga, Zinegotzi jaun-andreak, Iker Aldazabal Basauri Alkate jaunaren Lehendakaritzapean biltzen dira, lehenengo deialdiz eta Idazkari lanetan Daniel Salazar Irusta jauna arituz.

Ez da agertu, etorri ezina adierazita, Roke Akizu Aizpiri zinegotzi jauna.

1.- **2018KO MAIATZAREN 9KO SAIOAREN AKTA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.-** Ikusirik, aho batez erabakitzen da 2018ko maiatzaren 9an egindako saioaren akta onartzea, Batzarkide guztiei aurrez kopia bana bidali zaielarik.

2.- **2018KO UZTAILAREN 11KO SAIOAREN AKTA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.-** Ikusirik, aho batez erabakitzen da 2018ko uztailaren 11an egindako saioaren akta onartzea, Batzarkide guztiei aurrez kopia bana bidali zaielarik.

3.- **ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.-** Alkatetzak jarraian zehaztutako dekretu bidez hartutako erabakien berri ematen zaio Udal Batzarrari:

• **Uztailaren 9ko 52/2018 dekretua.** Honen bidez, I.F.C. lanaldi partzialerako

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO EL DÍA 17 DE OCTUBRE DE 2018.-**

En la villa de Soraluze/Placencia de las Armas, siendo las 19:00 horas del día 17 de octubre de 2018, previa convocatoria al efecto, se reúnen en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, los Sres. Tenientes de Alcalde, Dña. Patricia Borinaga Albéniz, Dña. Nagore Zabala Arrieta y D. Iñaki Rubio Torrientes y los Sres. Concejales D. Ramón Gallastegi Aldazabal, D. Javier Garmendia Ondarra, D. Unai Larreategi Azurmendi, Dña. Lorea de Castro Lete, Dña. Ainhoa Unamuno Aranburu y D. Xabier Arribillaga Beretxinaga, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, D. Iker Aldazabal Basauri, en primera convocatoria y asistiendo como Secretario, D. Daniel Salazar Irusta.

No asiste, habiendo excusado su asistencia, el concejal D. Roke Akizu Aizpiri.

1.- **APROBACIÓN, EN SU CASO, DEL ACTA DE LA SESIÓN DE FECHA 9 DE MAYO DE 2018.-** Vista, se acuerda por unanimidad, aprobar el acta de la sesión de fecha 9 de mayo de 2018, de la que se ha remitido copia a todos los Sres. Corporativos.

2.- **APROBACIÓN, EN SU CASO, DEL ACTA DE LA SESIÓN DE FECHA 11 DE JULIO DE 2018.-** Vista, se acuerda por unanimidad, aprobar el acta de la sesión de fecha 11 de julio de 2018, de la que se ha remitido copia a todos los Sres. Corporativos.

3.- **DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.-** Se da cuenta a la Corporación de los acuerdos adoptados mediante los siguientes Decretos de Alcaldía:

• **Decreto 52/2018, de 9 de julio,** por el que se acuerda contratar a tiempo

kontratatzea erabakitzen da, uztailaren 10tik irailaren 20a bitartean, biak barne, gizarte eta osasun arretarako laguntzaile lanak egin ditzan.

parcial a I.F.C., para desempeño de trabajos de auxiliares de atención socio-sanitaria, desde el 10 de julio hasta el 20 de septiembre, ambos inclusive.

- **Uztailaren 9ko 53/2018 dekretua.** Honen bidez, Udal honen parte hartzea lizitatzaile gisa onartzea erabakitzen da, 2018ko uztailaren 12ko enkantean (Pascual Churruca, S.A.).

- **Decreto 53/2018, de 9 de julio,** por el que se acuerda aprobar la participación de este Ayuntamiento en calidad de licitador en la subasta del día 12 de julio de 2018 (Pascual Churruca, S.A.).

- **Uztailaren 12ko 54/2018 dekretua.** Honen bidez, Udal honen adostasuna adieraztea erabakitzen da, eskualdeko gainerako udalek enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako aurkeztutako proiektuekiko.

- **Decreto 54/2018, de 12 de julio,** por el que se acuerda mostrar la conformidad de este Ayuntamiento con los proyectos presentados por el resto de Ayuntamientos de la comarca para acciones locales de promoción de empleo.

- **Uztailaren 12ko 55/2018 dekretua.** Honen bidez, 2018ko 3. hiruhilabeteari dagokion, etxe, denda eta industrietako zabor-bilketa zerbitzuaren zergadunen errolda onartzea erabakitzen da.

- **Decreto 55/2018, de 12 de julio,** por el que se acuerda aprobar el padrón de contribuyentes del servicio de recogida domiciliaria, comercial e industrial de basuras, correspondiente al 3er trimestre de 2018.

- **Uztailaren 13ko 56/2018 dekretua.** Honen bidez, udal brigadarako bi peoi kontratatzeko espedienteari hasiera ematea erabakitzen da.

- **Decreto 56/2018, de 13 de julio,** por el que se acuerda iniciar el expediente para la contratación de dos peones para la brigada municipal.

- **Uztailaren 18ko 57/2018 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

- **Decreto 57/2018, de 18 de julio,** por el que se acuerda aprobar la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

- **Uztailaren 18ko 58/2018 dekretua.** Honen bidez, 2018ko uztailari eta abuztuari dagozkion gizarte larrialdietarako laguntzak ematea erabakitzen da.

- **Decreto 58/2018, de 18 de julio,** por el que se acuerda conceder las ayudas de emergencia social correspondientes a los meses de julio y agosto de 2018.

- **Uztailaren 18ko 59/2018 dekretua.** Honen bidez, “Soraluzen Bizikidetza Sustatuz” proiektua onartzea erabakitzen da.

- **Decreto 59/2018, de 20 de julio,** por el que se acuerdan aprobar el proyecto “Soraluzen Bizikidetza Sustatuz”.

- **Uztailaren 23ko 60/2018 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

- **Decreto 60/2018, de 23 de julio,** por el que se acuerda aprobar la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

- **Uztailaren 25eko 61/2018 dekretua.** Honen bidez, Errabal kalearen urbanizazio lanak egiteko proposamen abantailatsuena aurkeztu duen Construcciones Artzamendi, S.A.ri, falta diren agiriak aurkez ditzala eskatzea erabakitzen da.

- **Decreto 61/2018, de 25 de julio,** por el que se acuerda requerir a Construcciones Artzamendi, S.A., licitador que ha presentado la oferta más ventajosa para las obras de urbanización en Errabal kalea, para que presente la documentación que falta.

- **Uztailaren 30eko 62/2018 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

- **Decreto 62/2018, de 30 de julio,** por el que se acuerda aprobar la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

- **Abuztuaren 1eko 63/2018 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

- **Decreto 63/2018, de 1 de agosto,** por el que se acuerda aprobar la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

- **Abuztuaren 1eko 64/2018 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

- **Decreto 64/2018, de 1 de agosto,** por el que se acuerda aprobar la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

- **Abuztuaren 2ko 65/2018 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

- **Decreto 65/2018, de 2 de agosto,** por el que se acuerda aprobar la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

- **Abuztuaren 3ko 66/2018 dekretua.** Honen bidez, kredituak aldatzeko 2018-KALD-00007-00 zk. duen espedientea onartzea erabakitzen da.

- **Decreto 66/2018, de 3 de agosto,** por el que se acuerda aprobar el expediente de modificación de créditos identificado con el nº 2018-KALD-00007-00.

- **Abuztuaren 6ko 67/2018 dekretua.** Honen bidez, Soraluzeko Errabal kalean, 12 eta 29. zenbakien artean, urbanizazio-lanak egiteko kontratua Construcciones Artzamendi, S.A. enpresari esleitzea erabakitzen da.

- **Decreto 67/2018, de 6 de agosto,** por el que se acuerda adjudicar el contrato de urbanización de Errabal kalea de Soraluze, entre los números 12 y 29, a la empresa Construcciones Artzamendi, S.A.

- **Abuztuaren 6ko 68/2018 dekretua.** Honen bidez, kredituak aldatzeko 2018-KALD-00008-00 zk. duen espedientea onartzea erabakitzen da.

- **Decreto 68/2018, de 6 de agosto,** por el que se acuerda aprobar el expediente de modificación de créditos identificado con el nº 2018-KALD-00008-00.

- **Abuztuaren 10eko 69/2018 dekretua.** Honen bidez, 2018ko otsaila arte Gila tabernako titularra izan den A.L.M.-ri terrazen erabileragatik jarritako abala itzultzea erabakitzen da, 200 euroko

- **Decreto 69/2018, de 10 de agosto,** por el que se acuerda proceder a la devolución del aval depositado para la utilización de terrazas, por importe de 200€, a A.L.M., titular del bar Gila hasta

zenbatekoa.

febrero de 2018.

- **Abuztuaren 23ko 70/2018 dekretua.** Honen bidez, Sologoeneko zentral hidroelektrikoaren mantentze, kontserbazio eta ustiaketarako laguntza zerbitzuaren kontratua Barbo Renovables, S.A. enpresari esleitzea erabakitzen da.

- **Decreto 70/2018, de 23 de agosto,** por el que se acuerda adjudicar el contrato de servicios de mantenimiento, conservación y ayuda en la explotación del aprovechamiento hidroeléctrico de la central de Sologoen, a la empresa Barbo Renovables, S.A.

- **Abuztuaren 24ko 71/2018 dekretua.** Honen bidez,J.F.A.E.-ren aurka espediente zehatzailea irekitzea erabakitzen da, animalien ordenantza urratzeagatik.

- **Decreto 71/2018, de 24 de agosto,** por el que se acuerda incoar expediente sancionador contra J.F.A.E., por infracción de ordenanza de animales.

- **Irailaren 4ko 72/2018 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

- **Decreto 72/2018, de 4 de septiembre,** por el que se acuerda aprobar la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

- **Irailaren 4ko 73/2018 dekretua.** Honen bidez, Aranzadi Zientzia Elkartearen aurrekontua onartzea erabakitzen da, Irukurutzetako indusketa arkeologikoa burutzeko.

- **Decreto 73/2018, de 4 de septiembre,** por el que se acuerda aprobar presupuesto de la Sociedad de Ciencias Aranzadi para realizar la excavación arqueológica de Irukurutzeta.

- **Irailaren 4ko 74/2018 dekretua.** Honen bidez, Aranzadi Zientzia Elkartearen aurrekontua onartzea erabakitzen da, Keixeta Egia Hegokoaren berreraiketa lanak burutzeko.

- **Decreto 74/2018, de 4 de septiembre,** por el que se acuerda aprobar presupuesto de la Sociedad de Ciencias Aranzadi para realizar los trabajos de reconstrucción de Keixeta Egia Hegokoa.

- **Irailaren 4ko 75/2018 dekretua.** Honen bidez, Begi Bistan entitatearen aurrekontua onartzea erabakitzen da, dolmenen ibilbideko bisita gidatuen zerbitzua egiteko.

- **Decreto 75/2018, de 4 de septiembre,** por el que se acuerda aprobar presupuesto de la entidad Begi Bistan para realizar el servicio de visitas guiadas en la ruta de los dólmenes.

- **Irailaren 6ko 76/2018 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

- **Decreto 76/2018, de 6 de septiembre,** por el que se acuerda aprobar la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

- **Irailaren 7ko 77/2018 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

- **Decreto 77/2018, de 7 de septiembre,** por el que se acuerda aprobar la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

- **Abenduaren 27ko 118/2017 dekretua.** Honen bidez, L.Tx.M. eta G.U.A. kontratatzea erabakitzen da, 2018ko

- **Decreto 78/2017, de 11 de septiembre,** por el que se acuerda contratar a L.Tx.M. y a G.U.A., desde el 17 de septiembre

irailaren 17tik abenduaren 16a arte, biak barne, peoi lanak egiteko lanaldi osoz, LANBIDEk diruz lagundutako "Hiri-altzariak eraberritzea" izeneko proiektuaren barruan.

hasta el 16 de diciembre de 2018, ambos inclusive, para desempeño de tareas como peón a tiempo completo, dentro del proyecto denominado "Reforma del Mobiliario Urbano", subvencionado por LANBIDE.

- **Irailaren 17ko 79/2018 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

- **Decreto 79/2018, de 17 de septiembre,** por el que se acuerda aprobar la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

- **Irailaren 17ko 80/2018 dekretua.** Honen bidez, 2018/9 baja datan jasotzen diren eta kobratzeke dauden eskubideak ezeztatzea erabakitzen da.

- **Decreto 80/2018, de 17 de septiembre,** por el que se acuerda anular los derechos reconocidos pendientes de cobro recogidos en la data de baja 2018/9.

- **Irailaren 17ko 81/2018 dekretua.** Honen bidez, kredituak aldatzeko 2018-KALD-00009-00 zk. duen espedientea onartzea erabakitzen da.

- **Decreto 81/2018, de 17 de septiembre,** por el que se acuerda aprobar el expediente de modificación de créditos identificado con el nº 2018-KALD-00009-00.

- **Irailaren 20ko 82/2018 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

- **Decreto 82/2018, de 20 de septiembre,** por el que se acuerda aprobar la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

- **Irailaren 20ko 83/2018 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

- **Decreto 83/2018, de 20 de septiembre,** por el que se acuerda aprobar la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

- **Irailaren 26ko 84/2018 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

- **Decreto 84/2018, de 26 de septiembre,** por el que se acuerda aprobar la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

- **Irailaren 26ko 85/2018 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

- **Decreto 85/2018, de 26 de septiembre,** por el que se acuerda aprobar la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

- **Urriaren 3ko 86/2018 dekretua.** Honen bidez, 2018ko 4. hiruhilabeteari dagokion, etxe, denda eta industrietako zabor-bilketa zerbitzuaren zergadunen errolda onartzea erabakitzen da.

- **Decreto 86/2018, de 3 de octubre,** por el que se acuerda aprobar el padrón de contribuyentes del servicio de recogida domiciliaria, comercial e industrial de basuras, correspondiente al 4º trimestre de 2018.

• **Urriaren 4ko 87/2018 dekretua.** Honen bidez, N.J.M. kontratatzea erabakitzen da, 2018ko urriaren 8tik 2019ko apirilaren 7a arte, biak barne, teknikari lanak egiteko lanaldi partzialez, LANBIDEk diruz lagundutako "Ingurugiro eta jasangarritasun arloari bultzada emateko" izeneko proiektuaren barruan.

• **Decreto 87/2018, de 3 de octubre,** por el que se acuerda contratar a N.J.M., desde el 8 de octubre de 2018 hasta el 7 de abril de 2019, ambos inclusive, para desempeño de tareas técnicas a tiempo parcial, dentro del proyecto denominado "Impulso al medio ambiente y la sostenibilidad en el municipio", subvencionado por LANBIDE.

**4.- <u>2019. URTERAKO ORDENANTZA FISKALAK.-</u>** Gobernu taldearen proposamena azaltzen hasi aurretik, **Alkateak** hitza hartu eta eskatzen du Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren errekargua kentzea etxebizitza hutsei.
Eskaera hau ez dela berria dio eta azken urteotan gauza bera eskatzen ari direla gaineratzen du. Urte hauetako esperientziak erakusten digu, bestalde, merkaturatu ahal izateko inbertsio oso handia eskatzen duten etxebizitzak direla sarri askotan: herentziaz jasotako etxebizitzak, erdi utzita dauden baserriak, etxebizitza oso txikiak,…

**4.- <u>ORDENANZAS FISCALES PARA EL AÑO 2019.-</u>** Antes de pasar a exponer la propuesta del equipo de gobierno, toma la palabra **el alcalde** para solicitar la eliminación del recargo del IBI a las viviendas vacías.
Continúa diciendo que no es nada nuevo sino algo que vienen pidiendo a lo largo de los últimos años. La experiencia de estos años nos hace ver que de lo que estamos hablando es de viviendas que en muchos casos requieren de una fuerte inversión para poder sacarlas al mercado, viviendas adquiridas por herencia, caseríos en situaciones de medio abandono, viviendas muy pequeñas.

Bototara jarrita, proposamena ez da onartzen, EAJ/PNVko batzarkideei dagozkien aldeko lau botoz eta EHBilduko (lau) eta PSE-EEko (bi) batzarkideei dagozkien kontrako sei botoz.

Procedida a la votación, la propuesta es rechazada por cuatro votos a favor, correspondientes a Corporativos de EAJ/PNV, y seis votos en contra, correspondientes a Corporativos de EHBildu (cuatro) y PSE-EE (dos).

**Patricia Borinaga:** Aurtengoa azken urtea izatea espero dut eta puntu hau gehiagotan ez ekartzea plenora, zeren eta 2019an etxebizitzaren legea garatzen duen araudia onartuko da eta gai hau erabakita utziko du.
Gure ustez errekarguak baditu hainbat salbuespen eta ez ezartzeko aukerak eskaintzen ditu. Etxebizitzak geldirik edukitzeak salmenta edo alokairu prezioak handitzen ditu eta honen inguruan zerbait eginbeharra daukagu.

**Patricia Borinaga:** Espero que este sea el último año que se traiga este punto, ya que a lo largo del 2019 se va a aprobar el reglamento que desarrolla la ley de vivienda y resolverá este tema.

Nosotras creemos que el recargo tiene ciertas exenciones y que ya se dan opciones para su no aplicación. Tener viviendas inmovilizadas incrementa el precio de venta o alquiler y sobre eso tenemos la obligación de incidir de alguna manera.

**Unai Larreategi:** Patricia Borinagarekin bat gatoz eta EAJ-k, errekarguaren kontra badago ere, errekargu horrekin biltzen duen dirua ez du etxebizitza politikak ezartzera bideratzen. Kontraesan bat da. Errekarguaren bidez lortutako diru-sarrerak etxebizitzaren arazoa arintzera bideratu behar lirateke. Garbi dago Soraluze ez dela Zarautz, baina pentsamolde aldaketak berdina izan behar du han eta hemen, eta talde guztiok etxebizitza politika bateratu bat garatu behar genuke.

**Unai Larreategi:** Estamos de acuerdo con Patricia Borinaga y el PNV, a pesar de estar en contra del recargo, no destina el dinero que recauda con el recargo a políticas de vivienda; es un contrasentido. Los ingresos procedentes de ese recargo se deberían de destinar a paliar en su medida el problema de la vivienda en Soraluze. Claro que Soraluze no es Zarautz, pero el cambio de mentalidad debe de ser el mismo y deberíamos de hacer una política conjunta de vivienda entre todos los grupos.

Alkateak hitza hartu eta azaltzen du gobernu taldearen proposamena ordenantza fiskalei buruz, tasak, orokorrean, KPIaren arabera igotzea izan dela.

Toma la palabra el Sr. Alcalde y expone que la propuesta del equipo de gobierno con respecto a las ordenanzas fiscales ha sido, en términos generales, la de subir las tasas lo mismo que el IPC.

KPIaren urte arteko aldakuntza, 2017ko abuztua eta 2018ko abuztuaren artean, %2,2 izan da estatu mailan, Euskal Autonomia Erkidego mailan izan den berdina.

La variación del IPC interanual estatal entre agosto 2017 y agosto 2018 ha sido 2,2% a nivel estatal, la misma que a nivel de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Datu hauek ikusita, oro har, tasak eta zergak %2,2igotzea proposatzen da.

Vistos estos datos, en términos generales, se propone subir las tasas e impuestos en 2,2 %.

Dena den, ondorengo aldaketak proposatzen dira:

a) Tasa berri bat txertatzea, landabideen aprobetxamendu bereziarengatik.
b) Etxez-etxeko laguntza zerbitzuari dagokion atalaren idazketaren aldaketa, 2018ko maiatzean arautegi propioa onartu ondoren.

Además, se proponen las siguientes modificaciones:

a) Inclusión de una nueva tasa por aprovechamiento especial de caminos rurales.
b) Modificación del apartado del servicio de ayuda domiciliaria tras haberse aprobado una ordenanza propia en mayo de 2018.

Ondoren zehazten dira proposatutako aldaketak:

A continuación, se detallan las modificaciones propuestas:

- **ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK TASAK**

- **TASAS POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS**

**1 ZK. ERANSKINA**
**ZERBITZUAK ESKAINI ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIK TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

**ANEXO Nº 1**
**ORDENANZA REGULADORA DE TASAS POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES**

**1.A.- INTERESDUNAREN ESKARIZ DOKUMENTUAK LUZATZEA**

**1.A.- EXPEDICIÓN DE DOCUMENTOS A INSTANCIA DE PARTE**

1. Udaltzaingoak aseguru etxeentzako egindako txostenak.
   *Informes expedidos por la Policía Municipal para compañías aseguradoras* ........................... 48,32 €

2. DIN A4 fotokopiagatik (Udalean egin beharreko izapideentzat).
   *Por fotocopia en DIN A4 (necesaria para trámites en el Ayuntamiento* .................................... 0,23 €

3. DIN A3 fotokopiagatik (Udalean egin beharreko izapideentzat).
   *Por fotocopia en DIN A3 (necesaria para trámites en el Ayuntamiento* .................................... 0,34€

4. SUSTATZAILE PARTIKULARRAK UDALAREN KARTOGRAFIA EGUNERATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA
   *TASA AL PROMOTOR PRIVADO PARA LA ACTUALIZACIÓN DE LA CARTOGRAFÍA MUNICIPAL*
   - 4.1. Baimendutako edozein obra amaierako lan kartografikoak, ondoriozko azaleraren aldaketa eragiten dutenean edo fatxaden lerrokadurari edo bide publikoari nolabait eragiten diotenean, LEHENENGO HEKTAREA EDO ZATIAGATIK.
     *Trabajos cartográficos tras fin de cualquier obra autorizada que implique modificación de superficie resultante o afecten a alineaciones de fachadas o vía pública, POR PRIMERA HECTÁREA O FRACCIÓN* .................................................................. 1.264,40 €
   - 4.2. Baimendutako edozein obra amaierako lan kartografikoak, ondoriozko azaleraren aldaketa eragiten dutenean edo fatxaden lerrokadurarl edo bide publikoari nolabait eragiten diotenean, ONDORENGO HEKTAREENGATIK.
     *Trabajos cartográficos tras fin de cualquier obra autorizada que implique modificación de superficie resultante o afecten a alineaciones de fachadas o vía pública, POR SIGUIENTES HECTÁREAS* ...................................................................................... 919,56 €

**1.B.- ZABOR-BILKETA ZERBITZUA, ETXE, DENDA ETA INDUSTRIETAKOA**

**1.B.- SERVICIO DE RECOGIDA DOMICILIARIA, COMERCIAL E INDUSTRIAL DE BASURA**

1. Etxebizitza abonatuak, trimestrean.
   *Abonados domésticos viviendas, al trimestre* ........................................................................ 43,41 €

2. Baserriak trimestrean.
   *Abonados de caseríos al trimestre*…… ..................................................................................... 18,25 €

3. Familia ugarietako familia buruen jabegokoak diren etxebizitzak trimestrean.
   *Abonados de viviendas cuya titularidad corresponda al cabeza de familia de familias numerosas, al trimestre* ................................................................................................. 22,81 €

4. Etxaburuetako Udal Merkatu Plazako postu finkoek sortzen duten zaborra, trimestrean.
   *Basura generada por los puestos fijos del Mercado Municipal de Etxaburueta, al trimestre* .......................................................................................................................... 97,26 €

5. Alargunen jabegokoak diren etxebizitzak trimestrean.
   *Abonados de viviendas cuya titularidad corresponda a personas en estado de viudedad, al trimestre* .................................................................................................... 23,73 €

20. Lokalaren garbiketagatik, erabileragatik zein pertsonen sartu-irtenagatik zaborra sortzen duten lokalak, trimestrean, hala nola: liburudenda, paper-denda, mertzeria, arropa denda, kirol denda, ehun denda, elektrizitate, garraio, bulego tekniko, loteria administrazio, akademia, argazki denda, aseguru bulego, dibujo eskola, estanko, ortodontzia, dietetika gaien biltegi, bideo-klub, postetxe, lorategi, botika, mediku kontsulta, optika, lurrindegi, bitxitegi, drogeria, zapata denda, altzari denda, elektratresnen denda, autoeskola eta ileapaindegiak.
    *Locales en los que la basura generada proviene de la limpieza del local, por el uso o tránsito de personas, al trimestre: librería, papelería, mercería, tienda de ropa, tienda de deportes, tienda de telas, electricidad, transportes, oficina técnica, administración de lotería, academia, fotografía, oficina de seguros, escuela de dibujo, estanco, ortodoncia, almacén dietético, vídeo club, correos, floristería, farmacia, consulta médica, óptica, perfumería, joyería, droguería, zapatería,*

| | | |
|---|---|---|
| | *mueblería, electrodomésticos, autoescuela, peluquería*..................................................... | 102,60 € |
| 21. | Lokalaren garbiketagatik, pertsonen sartu-irtenagatik zein hondakin organikoengatik zaborra sortzen duten lokalak, trimestrean, hala nola: taberna, upelategi, jatetxe, harategi, arrandegi, frutategi, okindegi, karamelu denda eta gozotegiak.<br>*Locales en los que la basura generada proviene de la limpieza del local, tanto por el tránsito de personas como por restos de basura orgánica, al trimestre: bar, bodega, restaurante, carnicería, pescadería, frutería, panadería, caramelería, pastelería* .......... | 194,51 € |
| 22. | Lokalaren garbiketagatik eta erabilitako material hondakinengatik (pakete-azalak, kartoiak, etab.) zaborra sortzen duten lokalak, trimestrean, hala nola: biltegi (dietetika gaien biltegiak izan ezik), aroztegi, burdindegi, igeltseritza, txatartegi, iturgindegi eta banketxeak.<br>*Locales en los que la basura generada proviene de la limpieza del local y de restos de materiales utilizados, envolturas, cartones, etc., al trimestre: almacenes (excepto almacén dietético), carpintería, ferretería, albañilería, chatarrería, fontanería, entidades financieras*.................................................................................................................. | 209,11 € |
| 23. | 2 langile arteko industriak, trimestrean.<br>*Industrias de hasta 2 trabajadores, al trimestre* ...................................................................... | 238,18 € |
| 24. | 3tik 15 langile arteko industriak, trimestrean.<br>*Industrias de 3 a 15 trabajadores, al trimestre* ........................................................................ | 445,47 € |
| 25. | 15 langile baino gehiagoko industriak, trimestrean.<br>*Industrias de más de 15 trabajadores, al trimestre*................................................................ | 613,26 € |
| 26. | Etxebizitzak: ERABILERA EZ EGOKIAGATIKO TARIFA, laugarren hiruhilekoa.<br>*Viviendas: TARIFA POR UTILIZACIÓN INCORRECTA, cuarto trimestre* ................................. | 86,83 € |
| 28. | Etxebizitza: Udalak egiaztatu eta ontzat emandako autokonposta edo auzokonposta egiten duten abonatuak, hiruhilean.<br>*Viviendas: Abonados domésticos que realicen autocompostaje o compostaje comunitario verificado y con el visto bueno del Ayuntamiento, al trimestre* ……........... | 40,28 € |

**SALBUESPENAK**

Zabor-bilketa zerbitzuari dagokion tasa ordaintzetik salbuetsita geratzen dira:

-hondamen egoeran dauden baserriak.
-inongo jarduerarik ez duten lokalak.

**EXENCIONES**

Se exime del pago de esta tasa correspondiente al servicio de recogida de basura a:
-caseríos en estado ruinoso.
-locales que no registren actividad alguna.

**TARIFEN APLIKAZIO ARAUAK**

-Baserri hutsek etxebizitza hutsak bezala ordainduko dute. Ordaintzetik salbu geldituko dira hondamen egoeran dauden baserriak soilik.

-Jatetxe jarduera duten baserriek, jatetxeei dagokien tarifa bera ordainduko dute.

Laugarren hiruhilabetean errolda osoaren errebisio bat egingo da eta erabileraren arabera, 1 tarifa edo 26 tarifa aplikatuko dira hiruhileko horretan, ondorengoaren

**NORMAS DE APLICACIÓN DE LAS TARIFAS**

-Los caseríos vacíos tributarán como viviendas vacías. Únicamente quedarán exentos de pago los caseríos que se encuentren en estado de ruina.

-Los caseríos que tengan actividad de restaurante, pagarán la misma tarifa que los restaurantes.

En el cuarto trimestre se hará una revisión del padrón y para ese trimestre, se aplicará la tarifa 1 ó 26 en función del uso, de acuerdo con los siguientes

arabera:

-Kontenedore marroia eta grisa, biak 25 aldiz baino gutxiago erabili badira (zaborrik ez, edo oso gutxi jeneratzen denaren seinale, etxebizitza hutsak, e.a…): 1 tarifa aplikatuko da.

-Kontenedore marroia 25 aldiz baino gutxiago erabili bada eta grisa 25 aldiz baino gehiago, 26 tarifa aplikatuko da.

criterios:

-Tanto el contenedor marrón como el gris, se han utilizado los dos, menos de 25 veces (no se ha generado basura, o se ha generado muy poca, viviendas vacías, etc…): Se aplicará la tarifa 1.

-Si el contenedor marrón se ha utilizado menos de 25 veces y el gris se ha utilizado más de 25 veces, se aplicará la tarifa 26.

**1.C.- <u>UDAL HILERRIA</u>**

**1.C.- <u>CEMENTERIO MUNICIPAL</u>**

1. Nitxo, panteoi edo lurrean hobiratzea
   *Inhumación en nicho, panteón o tierra* .......... 416,16 €
2. Espresuki eskatuta hobitik ateratzea.
   *Exhumación a petición expresa* .......... 208,08 €
3. Errautsen kaxen ehorzketa.
   *Enterramientos de cajas de restos incinerados* .......... 93,64 €

**1.D.- <u>ETXABURUETAKO UDAL MERKATU PLAZA</u>**

**1.D.- <u>PLAZA DEL MERCADO MUNICIPAL DE ETXABURUETA</u>**

1. Saltoki finkoak okupatzeagatik, hilean.
   *Por ocupación de puestos fijos, al mes*.......... 127,22 €

**<u>SALBUESPENAK</u>**

Tasa hau ordaintzetik salbuetsita geratzen dira, Etxaburuetako merkatuan postuak erabiltzen dituzten baserritarrak.

**<u>EXENCIONES</u>**

Se exime del pago de esta tasa a los baserritarras que utilicen los puestos del mercado de Etxaburueta.

**1.E.- <u>KALEETATIK IBILGAILUAK KENTZEA</u>**

**1.E.- <u>RETIRADA DE VEHÍCULOS DE LA VÍA PÚBLICA</u>**

1. Kaleetatik ibilgailuak kentzeagatik:
   *Por retirada de vehículos de la vía pública:*

   - Bizikletak, ziklomotoreak, motozikletak.
     *Bicicletas, ciclomotores, motocicletas* .......... 48,31 €
   - Automobilak, turismoak, kamioiak, atoiak, karabanak.
     *Automóviles, turismos, camiones, remolques, caravanas* .......... 109,20€

2. Ibilgailuak garabiz eramateagatik kaleetatik:
   *Por enganche de la grúa en la vía pública:*

   - Bizikletak, ziklomotoreak, motozikletak.
     *Bicicletas, ciclomotores, motocicletas* .......... 20,71 €
   - Automobilak, turismoak, kamioiak, atoiak, karabanak.
     *Automóviles, turismos, camiones, remolques, caravanas* .......... 97,71 €

3. Ibilgailuak mugiezinik uzteagatik kaleetan:

*Por inmovilización de vehículos en la vía pública:*

- Bizikletak, ziklomotoreak, motozikletak.
  *Bicicletas, ciclomotores, motocicletas* .......... 20,71 €
- Automobilak, turismoak, kamioiak, atoiak, karabanak.
  *Automóviles, turismos, camiones, remolques, caravanas* .......... 48,31 €

**1.F.- <u>JARDUERA ESPEDIENTEEN TRAMITAZIOA</u>**

**1.F.- <u>TRAMITACIÓN DE EXPEDIENTES DE ACTIVIDAD</u>**

1. Banketxeak eta gainontzeko kreditu-etxeak
   *Bancos y demás entidades de crédito* .......... 1.221,84 €
2. Antzokiak eta zinemak
   *Teatros y cines* .......... 740,96 €
3. Bitxitegiak, zilartegiak eta erloju-dendak
   *Joyerías, platerías y relojerías* .......... 417,23 €
4. Kasinoak eta jolas zentroak
   *Casinos y círculos de recreo* .......... 285,71 €
5. Hortz-klinikak, etab.
   *Clínicas dentales, etc.* .......... 228,77 €
6. Hotelak, jatetxeak eta askaldegiak
   *Hoteles, restaurantes y merenderos* .......... 228,77 €
7. Janari-etxeak, fondak eta tabernak
   *Casas de comidas, fondas y bares* .......... 228,77 €
8. Torlojugintza
   *Producción de tornillería* .......... 228,77 €
9. Elikagaien eta edarien industriak
   *Industria de productos alimenticios y bebidas* .......... 228,77 €
10. Janari biltegiak eta handizkako salmenta
    *Almacenes de ultramarinos y venta al por mayor* .......... 228,77 €
11. Torloju-gaien biltegi eta merkaturatzea
    *Almacén y comercialización de artículos de tornillería* .......... 228,77 €
12. Fruitu lehorren etab.-en handizkako biltegiak
    *Almacenes al por mayor de frutos secos etc.* .......... 228,77 €
13. Margo-gaien biltegi eta merkaturatzea
    *Almacén y comercialización de artículos de pintura* .......... 228,77 €
14. Garraiobideen biltegi eta terminala
    *Almacén y terminal de transportes* .......... 228,77 €
15. Postetxea
    *Correos* .......... 228,77 €
16. Aroztegiak eta zurgindegiak
    *Talleres de carpintería y ebanistería* .......... 190,83 €
17. Hojalategiak, iturgindegiak, etab.
    *Talleres de hojalatería, fontanería, etc.* .......... 190,83 €
18. Elektrizitate tailerrak
    *Talleres de electricidad* .......... 190,83 €
19. Lantegi mekanikoak, orokorrean
    *Talleres mecánicos, en general* .......... 190,83 €
20. Hortz-protesien laborategiak
    *Laboratorios prótesis dental* .......... 190,83 €
21. Telefoniako banaguneen instalazioa, etab.
    *Instalación de bases de telefonía, etc.* .......... 190,83 €
22. Transformazio elektrikoko zentroa
    *Centro de transformación eléctrica* .......... 190,83 €
23. Kristal tailerrak
    *Taller de cristalería* .......... 190,83 €
24. Xehekako janari- eta edari-salmenta
    *Venta de alimentos y bebidas al por menor* .......... 190,83 €
25. Oinetako-, poltsa- eta larruki-dendak
    *Tiendas de zapatos, bolsos, marroquinería etc.* .......... 151,75 €
26. Optikak, botikak, xehekako salmenta
    *Ópticas, farmacias, venta al por menor* .......... 149,39 €
27. Altzari dendak, bazarrak, burdindegiak, burdin biltegiak, etab.
    *Mueblerías, bazares, ferreterías, almacenes de hierros, etc.* .......... 149,39 €
28. Ibilgailuen garaje-zaindegiak

*Garajes guarda-vehículos* ........................................................................................................ 149,39 €

29. Ile-apaindegiak
*Salones de peluquería* ........................................................................................................ 149,39 €

30. Paper-, egunkari- eta liburu-dendak
*Papelerías, periódicos, librerías, etc.* ........................................................................................ 149,39 €

31. Loradendak, loreak eta landareak
*Floristerías, flores y plantas* .................................................................................................. 149,39 €

32. "Todo a cien" saltokiak
*Tiendas de venta de "todo a cien"* ......................................................................................... 149,39 €

33. Bideoklub-bideomatic saltokiak
*Establecimientos de videoclub-videomatic* .............................................................................. 149,39 €

34. Higiezinen agentziak beheko solairuan
*Oficinas inmobiliarias en planta baja* ...................................................................................... 149,39 €

35. Mintzalekuak
*Locutorios* ............................................................................................................................. 149,39 €

36. Abeltzaintzako ustiategiak
*Explotaciones ganaderas* ......................................................................................................... 112,70 €

37. Xehekako fruta salmenta
*Venta al detalle de fruta* ......................................................................................................... 112,70 €

38. Xehekako ogi salmenta
*Venta al detalle de pan* .......................................................................................................... 112,70 €

39. Pastel eta gozoen xehekako salmenta
*Venta al detalle de artículos de pastelería y confitería* ............................................................ 112,70 €

40. Okela eta arrainen xehekako salmenta
*Venta al detalle de carnes y pescados* .................................................................................... 112,70 €

41. Argindarraren salmenta. Modulu fotovoltaikoak
*Venta de energía eléctrica. Módulos fotovoltaicos* .................................................................. 112,70 €

42. Erlijio-zerbitzuak eta bilera-aretoak
*Servicios religiosos y sala de reuniones* .................................................................................. 112,70 €

**1.G.- <u>HIRIGINTZA BAIMENAK EMATEA</u>**

**1.G.- <u>OTORGAMIENTO DE LICENCIAS URBANÍSTICAS</u>**

- Lanak egiteagatik, 3.000 € arteko aurrekontuaz.
*Presupuesto de ejecución de obra hasta 3.000 €* ......................................................................... 21,84 €

- Babes ofizialeko etxebizitzak, lanak egiteagatik, 3.000 € arteko aurrekontuaz.
*Viviendas de protección oficial con presupuesto de ejecución de obra hasta 3.000 €* ............. 10,92 €

- Familia ugarietako familia buruen jabegokoak diren etxebizitzetan egindako lanak egiteagatik, 3.000 € arteko aurrekontuaz.
*Obras en viviendas cuya titularidad corresponda al cabeza de familia de familias numerosas con presupuesto de ejecución de obra hasta 3.000 €* ...................................................................... 10,92 €

- Lanak egiteagatik, 3.001 eta 6.000 € arteko aurrekontuaz.
*Presupuesto de ejecución de obra entre 3.001 y 6.000 €* ................................................................ 44,80 €

- Babes ofizialeko etxebizitzak, lanak egiteagatik, 3.001 eta 6.000 € arteko aurrekontuaz.
*Viviendas de protección oficial con presupuesto de ejecución de obra entre 3.001 y 6.000 €*. 22,40 €

- Familia ugarietako familia buruen jabegokoak diren etxebizitzetan egindako lanak egiteagatik, 3.001 eta 6.000 € arteko aurrekontuaz.
*Obras en viviendas cuya titularidad corresponda al cabeza de familia de familias numerosas con presupuesto de ejecución de obra entre 3.001 y 6.000 €* ........................................................ 22,40 €

- Lanak egiteagatik, 6.001 eta 12.000 €.arteko aurrekontuaz.
Presupuesto de ejecución de obra entre 6.001 y 12.000 € ............................................................... 66,65 €

- Babes ofizialeko etxebizitzak, lanak egiteagatik, 6.001 eta 12.000 €.arteko aurrekontuaz.
Viviendas de protección oficial con presupuesto de ejecución de obra entre 6.001 y 12.000€ 33,32 €

- Familia ugarietako familia buruen jabegokoak diren etxebizitzetan egindako lanak egiteagatik, 6.001 eta 12.000 €.arteko aurrekontuaz.
*Obras en viviendas cuya titularidad corresponda al cabeza de familia de familias numerosas con presupuesto de ejecución de obra entre 6.001 y 12.000 €* ...................................................... 33,32 €

- Lanak egiteagatik, 12.001 eta 30.000 ∈ arteko aurrekontuaz.
  *Presupuesto de ejecución de obra, entre 12.001 y 30.000 ∈* ............................................................ 111,46 ∈

- Babes ofizialeko etxebizitzak, lanak egiteagatik, 12.001 eta 30.000 ∈ arteko aurrekontuaz.
  *Viviendas de protección oficial con presupuesto de ejecución de obra entre 12.001 y 30.000∈*........................................................................................................................................ 55,73 ∈

- Familia ugarietako familia buruen jabegokoak diren etxebizitzetan egindako lanak egiteagatik, 12.001 eta 30.000 ∈ arteko aurrekontuaz.
  *Obras en viviendas cuya titularidad corresponda al cabeza de familia de familias numerosas con presupuesto de ejecución de obra, entre 12.001 y 30.000 ∈* .................................................... 55,73 ∈

- Lanak egiteagatik, 30.000 ∈-tik gorako aurrekontuaz.
  *Presupuesto de ejecución de obra, superior a 30.000 ∈*.................................................................... 310,39 ∈

- Babes ofizialeko etxebizitzak, lanak egiteagatik, 30.000 ∈-tik gorako aurrekontuaz.
  *Viviendas de protección oficial con presupuesto de ejecución de obra, superior a 30.000 ∈* ... 155,20 ∈

- Familia ugarietako familia buruen jabegokoak diren etxebizitzetan egindako lanak egiteagatik, 30.000 ∈-tik gorako aurrekontuaz.
  *Obras en viviendas cuya titularidad corresponda al cabeza de familia de familias numerosas con presupuesto de ejecución de obra, superior a 30.000 ∈* ............................................................ 155,20 ∈

### 1.H.- <u>AISIALDI ETA KULTURA ZERBITZUAK</u>

### 1.H.- <u>SERVICIOS DE TIEMPO LIBRE Y CULTURA</u>

- Programako eta ekintzako zehaztuko dira partaide zenbakiaren eta zerbitzu kostuaren arabera.
  *Se determinarán por programa y actividad según número de participantes y coste del servicio* ........................................................................................................................................ --- €

**<u>TARIFEN MURRIZKETAK</u>**

-% 25eko murrizketa, familia bereko bi matrikula badaude
-% 50etik %90era arteko murrizketa, familia ugarientzat (ikus taula)
-% 100eko murrizketa errentaren arabera (ikus taula)

**<u>TARIFAS REDUCIDAS</u>**

-Reducción del 25%, si existen dos matriculaciones por familia
-Reducción del 50% hasta el 90%, para familias numerosas (ver tabla)
-Reducción del 100% en función de la renta (ver tabla)

| **FAMILIA UGARIEN TAULA**<br>*TABLA FAMILIAS NUMEROSAS* | |
|---|---|
| Aurreko urteko Errenta Aitorpenaren araberako, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren **Likidazio Oinarri Orokorra**<br><br>***Base liquidable general*** *del Impuestos sobre la Renta de las Personas Físicas de la Declaración de la Renta del año anterior* | |
| **Seme-alaba kopurua** / *Número de hij@s* | **40.000 € arte**<br>*Hasta 40.000 €* |
| 2 seme-alaba / *2 hij@s* | 50,00% |
| 3 seme-alaba / *3 hij@s* | 50,00% |
| 4 seme-alaba / *4 hij@s* | 70,00% |
| 5 seme-alaba edo gehiago / *5 hij@s o más* | 90,00% |

| **ERRENTAREN ARABERAKO TAULA TAULA**<br>*TABLA EN FUNCIÓN DE LA RENTA* | | |
|---|---|---|
| Aurreko urteko Errenta Aitorpenaren araberako, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren **Likidazio Oinarri Orokorra**<br><br>***Base liquidable general** del Impuestos sobre la Renta de las Personas Físicas de la Declaración de la Renta del año anterior* | | |
| **Familia unitatearen kideak**<br>*Miembros de la unidad familiar* | **Errenta muga**<br>*Límite de renta* | **Hobari portzentaia**<br>*Porcentaje de bonificación* |
| 1 | 8.143,00 | 100% |
| 2 | 13.350,00 | 100% |
| 3 | 17.567,00 | 100% |
| 4 | 20.201,00 | 100% |
| 5 | 23.232,00 | 100% |
| 6 | 26.717,00 | 100% |
| 7 | 30.724,00 | 100% |
| 8 | 35.333,00 | 100% |
| 9 | +3.500,00 | 100% |

**1.I.- ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA** — **1.I.- SERVICIO DE AYUDA DOMICILIARIA**

- Orduko prezioa: Zerbitzuaren kostuaren gainean erabiltzaileak egingo duen ekarpena, zerbitzua arautzen duen araudiaren arabera zehaztuko da. Nolanahi ere, erabiltzaileak Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren orduko prezioaren %1,5 ordaindu beharko du gutxienez eta gehienez 15 €/orduko.
  *Precio por hora: La aportación del usuario del servicio sobre el coste del servicio vendrá determinada por la correspondiente ordenanza reguladora, En cualquier caso, toda persona usuaria abonará como mínimo el 1,5% del precio hora del SAD y como máximo 15 €/hora.* ........................................................................................................................................

**1.J.- KIROL ZERBITZUAK** — **1.J.- SERVICIOS DEPORTIVOS**

- Biraka dantza 2 egun, hilerokoa
  *Danza Biraka, 2 días, mensual* ............................................................................................................ 21 €
- Biraka dantza egun bat, hilerokoa
  *Danza Biraka, 1 día, mensual* ............................................................................................................ 13 €

- Futbol zelai erdiaren erretserba (ordu 1)/*Reserva de medio campo de fútbol (1 hora)* ............. 41 €
- Futbol zelai osoaren erretserba (ordu 1)/*Reserva campo de fútbol completo (1 hora)* ............. 56 €

- Multikirola, urtekoa.
  *Multideporte, anual* ............................................................................................................ 74 €

- Gainerako Zerbitzuak, programako eta ekintzako zehaztuko dira, partaide kopuruaren arabera (Uda kanpaina, e.a…)
  *Resto de servicios se determinarán por programa y actividad, según número de participantes* ............................................................................................................ --- €

**MULTIKIROLA ETA UDA KIROLERAKO TARIFEN MURRIZKETAK**

- % 25eko murrizketa, familia bereko bi

**TARIFAS REDUCIDAS PARA MULTIKIROLA Y UDA KIROLA**

- Reducción del 25%, si existen dos

matrikula badaude
- % 50etik %90era arteko murrizketa, familia ugarientzat (ikus taula)
- % 100eko murrizketa errentaren arabera (ikus taula)

matriculaciones por familia
- Reducción del 50% hasta el 90%, para familias numerosas (ver tabla)
- Reducción del 100% en función de la renta (ver tabla)

| **FAMILIA UGARIEN TAULA**<br>*TABLA FAMILIAS NUMEROSAS* | |
|---|---|
| Aurreko urteko Errenta Aitorpenaren araberako, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren **Likidazio Oinarri Orokorra**<br><br>***Base liquidable general*** *del Impuestos sobre la Renta de las Personas Físicas de la Declaración de la Renta del año anterior* | |
| **Seme-alaba kopurua /** *Número de hij@s* | **40.000 € arte**<br>*Hasta 40.000 €* |
| 2 seme-alaba / *2 hij@s* | 50,00% |
| 3 seme-alaba / *3 hij@s* | 50,00% |
| 4 seme-alaba / *4 hij@s* | 70,00% |
| 5 seme-alaba edo gehiago / *5 hij@s o más* | 90,00% |

| **ERRENTAREN ARABERAKO TAULA TAULA**<br>*TABLA EN FUNCIÓN DE LA RENTA* | | |
|---|---|---|
| Aurreko urteko Errenta Aitorpenaren araberako, Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren **Likidazio Oinarri Orokorra**<br><br>***Base liquidable general*** *del Impuestos sobre la Renta de las Personas Físicas de la Declaración de la Renta del año anterior* | | |
| **Familia unitatearen kideak**<br>*Miembros de la unidad familiar* | **Errenta muga**<br>*Límite de renta* | **Hobari portzentaia**<br>*Porcentaje de bonificación* |
| 1 | 8.143,00 | 100% |
| 2 | 13.350,00 | 100% |
| 3 | 17.567,00 | 100% |
| 4 | 20.201,00 | 100% |
| 5 | 23.232,00 | 100% |
| 6 | 26.717,00 | 100% |
| 7 | 30.724,00 | 100% |
| 8 | 35.333,00 | 100% |
| 9 | +3.500,00 | 100% |

**1.K.- KIROLDEGI ZERBITZUAK**

**1.K.- PRESTACIÓN DE SERVICIOS DEL POLIDEPORTIVO**

**URTEKO ABONUAK / *ABONOS ANUALES:***
- Familia-abonua (gurasoak eta 23 urtearteko seme-alabak ikasle edo langabetuak)
  *Abono familiar (Padres-madres e hijos/as hasta 23 años estudiantes o parados)* ....................... 220 €

- Familia-abonua, familia ugariak eta guraso bakarreko familiak (Aurreko urteko Errenta

Aitorpenaren arabera, Pertsona fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren Likidazio Oinarri Orokorra 40.000 € baino gutxiagokoa denean)
*Abono familiar, familias numerosas y familias monoparentales (Siempre que la Base liquidable general del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas de la Declaración de la renta del año anterior sea inferior a 40.000 €)* ........ 143 €

- Familia-abonua (langabetuak (biak langabezian)) eta laguntza sozialak jasotzen dituzten familiak, jubilatuak eta minusbaliatuak
  *Abono familiar (parados/as (los dos)) y familias que reciben ayudas sociales, jubilados/as y minusválidos/as* ........ 109 €

- Abonu indibiduala, 18 urtetik gorakoak
  *Abono individual, mayores de 18 años* ........ 121 €

- Abonu indibiduala, 18 urtetik beherakoak, ikasleak, langabetuak eta laguntza sozialak jasotzen dituzten pertsonak
  *Abono individual, menores de 18 años, estudiantes, parados y personas que reciben ayudas sociales* ........ 81 €

- Abonu indibiduala, minusbaliatuak eta jubilatuak
  *Abono individual, personas jubiladas y minusválidas* ........ 68 €

- Urteko abonua, eskalada
